

**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN IKUS ENTZUNEZKO LANAK EKOIZTEN DITUZTEN ETA ZERBITZUAK EMATEN DITUZTEN AKTOREEN ARTEKO HARREMANAK ARAUTZEN DITUEN I. AKORDIO KOLEKTIBOAREN HITZAURREA**

Azkeneko hiru urteetan gehiengoa zuen ordezkari-tza soziala eta patronala harremanetan hasi zirenetik ikus-entzunezko Hitzarmena estatuko Negoziatziora helburu bereko negoziatio autonomiko bat modu paraleloan eramaten saiatzeko, mahai bietan agerian utzi dute Komunitate Autonomiko bakoitzeko berezko akordioetara heldu beharra dagoela; batez ere, telebista-ko ikus-entzunezko sektorean eta telebista autonomikoa baduten Komunitateetan.

Zentzuzkoa da imajinatzea, sakoneko analisisien beharrik gabe, estatu mailako telebistek eta autonomikoek ez dituztela, inolaz ere, baliabide berak. Hori begi-bista-ko kontua da.


Baina horren guztiaren ondorioa estatuko lurralde-eremuan, 1995ean lehenengo estatu hitzarmena argitaratu zenetik, ezohiko aplikazioak izan dituela da, gure autonomian telebista bertako ekoizpenak bereziki jasan dituenak, alegia.

Produktoreek gaitzetsi dute estatu Hitzarmeneko soldaten konplimentuak ekartzen duela, alde batetik, banaketak nahi baino askoz ere murriztagoak izatea, eta, bestetik, aurrekontuak bete ezinagatik produkzioak bertan behera uztea.

Bestalde, estatuko Hitzarmenaren dituen 10 urteetan, telebista produkzioak nabarmen aldatu dira; hortaz, badaude produkzio batzuk zailak direnak artekatzen testuan bilduta daudenekin.

Hausnarketa horiek bi Negoziatio Mahaietan aztertu eta partekatu dituzte; bai estatukoan, bai gurean.

Estatuarenean ez da lortu, saiatu arren, behar bezalako irtenbidea ematerik; Hitzarmenaren estatuko lurralde aplikaziotik abiatuz, autonomietan telebista soldata tarifa ezberdinak ezartzea, aurrekoei egokituta, eta estatuko ehuneko gutxitzearen aukera esan nahiko luketenak. Betiere baldintza eta berme batzuk ziurtatuta.




**Gure Mahaian akordioa posible izan da. Akordio horretara ez heltzeak egoera tamalgarri horretan jarraitzea ekarriko zigukeen, produkzio eskasarekin eta lanbiderako lan gutxirekin.**

**Lortutako Akordioarekin, produkzioan hobekuntza kualitatibo eta kuantitatiboak lortzekotan gaude, eta lanbidearen kontratazio handiagoaren eta egonkorragoaren onerako izango da.**

**Horregatik, akordioari urtebeteko konfiantza emango diogu, eta iraun ere urtebete iraungo du.**

**Datorren urtean emaitza aztertzeko bilduko gara. Konpromisoa sinatzen dugunon artekoa da.**

A handwritten signature in black ink, consisting of several loops and a long horizontal stroke at the end.A handwritten signature in black ink, starting with a large 'A' and ending with a long horizontal stroke.A handwritten signature in black ink, featuring a vertical line on the left and several loops.

# EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN IKUS ENTZUNEZKO LANAK EKOIZTEN DITUZTEN ETA ZERBITZUAK EMATEN DITUZTEN AKTOREEN ARTEKO HARREMANAK ARAUTZEN DITUEN I. AKORDIO KOLEKTIBOA

## 1. Artikulua

Hitzarmen hau Ikus-entzunezkoen Euskal Ekoizle Burujabeen Elkarte (IBAIA), Euskal Produktoreen Elkarte (EPE/APV) eta Euskal Aktoreen Batasunaren artean erabaki da.

## 2. Artikulua

Hitzarmen hau Euskal Autonomia Erkidegora mugatzen da; horregatik, honen iraunaldi eta derrigorrezkotasuna Euskal Autonomia Erkidegoan gauzatutako interpretazio kontratu guztietara zabalduko da, zerbitzuak non ematen diren kontuan hartu gabe.

## 3. Artikulua

Hitzarmen honek, ikus-entzunezko lanak ekoizten dituzten produktoreen eta zerbitzuak ematen dituzten aktoreen arteko lan harremanak arautzen dituen II. Estatuko Hitzarmen Kolektiboko iraunaldia eta derrigorrezkotasuna ezartzen du: Espainiako Ikus-entzunezko Produktoreen Elkateen Federazioak (FAPAE), Estatuko Artisten Federazioak (FAEE), Espainiako Estatuko Aktore eta Aktorezen Sindikatuen Erakundeak (OSAAEE), Langileen Batasun Orokorreko Zerbitzuen Federazioak (Fes-UGT) eta Paper, Arte Grafiko, Komunikazio eta Ikuskizunen Federazio Sindikalak (FESPACE-CCOO) erabaki dute.


Aurrekoa gorabehera, sinadura honen bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoan ikus-entzunezko produktoreen eta aktoreen artean izenpetutako lan kontratuak esparru funtzionalera eta pertsonalera gehitzen dira, ondorengo Akordioak Autonomia, herrialde, eskualde eta lokalera Zabalkunde telebista ekoizpenera mugatuz:

### 3.a) KONTRATAZIOA

Kontratazioa honen iraupenaren arabera egingo da, eta ondorengo puntuetan azaltzen denaren arabera zehaztuko da:

- a) Zehaztutako kopuruaren araberako egunak eta saioak.
- b) Zehaztutako kopuruaren araberako asteak.
- c) Zehaztutako denboraldiaren arabera.

1- Ikus-entzunezko lan bat filmatzeko aurreikusitako iraupenaren arabera.



2- Hiru hilabeteko gutxieneko iraupena. Iraupen luzeko kontratazio deitzen den modalitate honek soldata-arautze ezberdina izango du gainontzeko beste kontratuetatik; gainera, beste kontratuetak baldintza batzuen konplimentuari lotua egongo da.

Giza kotizazioak aplikagarria den arauaren arabera egin beharko dira.

### 3.b) LANBIDE SAILKAPENA

1- Hitzarmen honetarako, aktoretzat joko dira, testua eduki edo ez, hitzarmen honen eraginez ikus-entzunezko lanen pertsonaiak interpretatzen dituztenak.

2- Hurrengo lanbide-sailkapena ezartzen da:

**AKTORE PROTAGONISTAK:** Aktoreak interpretatzen duen papera antzezlanaren gidoiko zatirik garrantzitsuenari dagokiona denean; bai antzezlan osoetan, bai kapituluka banatutako telebista serietan.

**BIGARREN MAILAKO AKTOREAK:** Aktoreak interpretatzen duen paperak antzezlanean nolabaiteko bermea daukanean, baina aurrekoaren ezaugarriak bete gabe; paper garrantzitsuen eta kategoria zerrendarako finkatutako testuaren mugaren artean kokatzen da, dudarik gabe.

Nolanahi ere, bigarren mailako papertzat joko da hogeita (20) lerro baino gehiago ez duen testua; gehienez ere, mekanografiatutako hirurogei (60) espaziorekin.

**BESTE AKTOREAK:** Aktoreak interpretatzen duen paperak, bere eginkizunak, antzezlanaren egitura orokorraren euskarri moduan balio duenean. Edonola ere, zerrenda papertzat hartuko da (20) lerro baino gehiago gainditzen ez duen testua; gehienez ere, mekanografiatutako (60) espaziorekin.

**ZATI TXIKIETAKO AKTOREAK:** Telebista serietan bakarrik aplikatzen dena. Zati txikitzat joko dira antzezlaneko aktoreak interpretatutako pertsonaiek ekarpen txikia egiten dutenean.

Dena dela, kategoria horretako papertzat hartuko dira lau (4) lerro baino gehiago ez duten testuak; gehienez ere, mekanografiatutako hirurogei (60) espaziorekin.

Kategoria honi dagozkion soldatak honako hauek dira:

Saioko	158,97 € + 2004ko KPI
Asteko	657,69 € + 2004ko KPI
Hilabeteko	1863,44 € + 2004ko KPI

**Kapitulu edo emanaldi unitatetzat hartuko da behar bezalako kokapen profesionalerako oinarritzat hartzen dugun lan-unitatea.**



### 3.c) SOLDATAK

Estatuko Hitzarmen Kolektiboan finkatutako soldata taulak ez direnak ezartzeko aukera zehazten da, baldin eta egoera hauek gertatzen badira:

- Estatuko hitzarmen horretan finkatutako baldintza orokorrak bete beharreko gutxieneko zuzenbide gisa errespetatzea.
- Eremu funtzionala autonomiako, probintziako, eskualdeko eta tokiko telebista produkzioetara mugatzea.

Hitzarmen honetan, hauxe ulertuko da:

- a) Autonomiako, herrialdeko, eskualdeko eta tokiko hedatze telebista ekoizpentzat hartuko da zinematografiko ez den ikus-entzunezko edozein produkzio, bere lehendabiziko ustiapena telebista sistemaren edo sistemen bidez hedatutakoa denean; Euskal Autonomia Erkidego edo satellite edo lur-digital bidezko sistemetara mugatuz, kanal autonomiko, probintziako, eskualdeko edo tokiko bati atxikita.
- b) Estatu mailako Zabalkundeko Telebista ekoizpentzat hartuko da lehenbiziko ustiapena telebista sistemaren edo sistemen bidez izango duen edozein produkzio, aurreko paragrafoan aipatutako eremu geografiko handiago baten barruan.

Kontuan hartuta ikusle kopurua Zabalkunde Autonomikoko produkzioetan murriztagoa dela Estatu mailako Zabalkundeko produkzioekin alderatuta, Estatuko Hitzarmen Kolektiboko I. eranskinean aipatzen diren soldata taulen gainean %15eko gehieneko murrizketa aplika liteke autonomiako, probintziako, eskualdeko eta tokiko telebista produkzioetan .

### 3.d) IRAUPEN LUZEKO KONTRATAZIOA

Iraupen mugatuko lan-kontratuek, gutxienez, hiru hilabeteko iraupena izango dute, eta, gutxienez, 60 kapituluko eguneroko emankizuneko serie produkzioetarako egingo dira. Iraupen luzekotzat joko dira eta soldata eta kontratu arautze berezi bati lotuta egongo dira.

#### A) Soldatak

Deialdirako prezio bat ezarriko da:

Protagonistak	385,90€ + 2004ko KPI
Bigarren mailakoak	287,7 € + 2004ko KPI
Beste aktoreak	217,38 € + 2004ko KPI



Modalitate honetan kontratatuta daudenek hileko gutxieneko soldata berrmatuta izango dute:

Protagonistak	4630,8€ + KPI 2004an
Bigarren mailakoak	2589,3€ + KPI 2004an
Beste aktoreak	1304,28€ + KPI 2004an

12, 9 eta 6 lan egiteagatik, hurrenez hurren.

Zati txikietako kategorian dauden aktoreen kontratazioa ez da kontuan hartzen modalitate honetan.

Deialdiak hiru hilabetez behin zenbatuko dira eta alde zuzenetik aipatutako ezarritako gutxienekoak gainditzen dituztenak deialdiko ordainduko dira.

#### **B) Iraupen luzeko kontratuak dituzten baldintza batzuk.**

- Deialdi kopurua hilabeteko, gehienez ere, 16koa izango da.
- Batez beste, egunean 5 sekuentzia egin ahal izango dira, eta hilabetean kontatuko dira.
- Sekuentzia bakoitzak, gehienez ere, hiru minutu eta erdiko iraupena izango du.
- Astebete zuzenetik aktoreari asteko telebista programazioa osorik emango zaio, dagozkion gidoiekin batera.
- Behar bezalako kategoria profesionaleko kokapen balorazioa egiteko, goian aipatutako kategoria parametroen arabera aktoreei. goi-mailako langile bilakatuz gero, soldataren diferentzia duten hiru hilabeteko kontratua bukatutakoan ordainduko litzaieke.

#### **3.e) BESTE IKUS ENTZUNEZKO PRODUKTU BATEKOAK DIREN SKETCHAK EGITEKO KONTRATAZIOA**



- *Sketcha* gehienez ere 4 minutu irauten duen antzezpen lana da.
- *Sketchak* geroagoko emanaldi baterako grabatu edota zuzenean egin daitezke.
- Geroagoko emanaldi baterako direnean, saio bakoitzeko bost *sketch* graba daitezke, gehienez ere.
- Lan kontratuak edozein modalitatetan egin daitezke, dagokien soldata eta kontratu arautzearekin.

#### **4. Artikulua**

##### **1- AKORDIOAREN INDARRALDIA**

Hirugarren artikuluko atal guztietan aipatutako akordioak sinatzen den datatik aurrera jarriko dira indarrean, eta urtebeteko iraupena izango dute.

Lehenagoko akordioetan aurreikusitako guztiaren indarraldia aplikaziorako Estatuko II. Hitzarmeneko 4. artikuluan finkatuta dago.



Bai bermatutako gutxieneko soldatak, bai gainontzeko baldintza ekonomikoak automatikoki igoko dira urteko urtarrilaren lehenengo egunetik aurrera, dagokion aurreko urte naturalean Kontsumorako Prezioen Indizeak izandako igoeraren arabera.

## 2- DEUSEZTAPENA ETA BERRIKUSPENA

a) Hitzarmenaren deuseztapena edo berrikuspena proposatzen duen salaketa, eskumena duen lan-erakundeari aurkeztu beharko zaio, gutxienez honen indarraldiaren bukaera edo edozein luzapenen data baino hilabete lehenago.

b) Behin salaketa eginda, aurreko atalarekin bat, 45 egunen buruan negoziazioak ezarriko dira, eta salatzaileak salaketa aurkeztu duen hurrengo egunetik aurrera zenbatuko da. Hitzarmeneko gainontzeko alderdiei egindako komunikazioan, salatzaileak beste Hitzarmen proiektu bat aurkeztu beharko du, edo, bestela, aldatuko diren puntuekin idatzita proiektu bat gehituko du.

c) Hitzarmen honen indarraldi epea edo bere beste edozein luzapen bukatutakoan, edozein alderdi sinatzailek bere berrikuspena eskatuko balu, Hitzarmenean ezarritako araubidea mantenduko da, dagozkion alderdiek Hitzarmen berri bat ezartzen duten arte, indarrean dagoen ordenamendu juridikoan lan agintaritzari erreserbatutako ahalmenei kasurik egin gabe .

## 5. Artikulua

1. Hitzarmen hau sinatu eta hurrengo 30 egunetan, eta bere garapenetik eta aplikaziotik eratorritako eztabaidagarri diren arazoak interpretatzeko xedearekin, betetzen den ikuskatzeko, Batzorde Misto Paritarioa eratuko da.


Batzorde Misto Paritarioa **bi ordezkari** osatuko dute gehienez alderdi sozial eta enpresarial bakoitzeko, gehi ordezko bat izendatutako bakoitzeko.

2. Batzorde Paritarioak ezohiko bilerak egingo ditu edozein alderditako ordezkariak Idazkariari hala eskatzen diotenean.

Deialdia 5 egunen buruan egingo da; egun horiek harrera egiten den unetik aurrera zenbatuko dira.

Batzorde Misto Paritarioaren saioetan, alderdiei beren aholkulariek lagun diezaiekete.

3. Batzorde Misto Paritarioak, saio bakoitzean, Presidente eta Idazkaria hautatuko du, eta euren karguetan batzordearen hurrengo saioko bilkurara arte arituko dira.



Presidentea eta Idazkaria ezin izango dira inola ere Hitzarmenaren alderdi negoziatzaile berekoak izan.

4. Aktore eta produkzio enpresek Batzorde Misto Paritarioari Hitzarmenaren ulermenari edo betetzeari buruzko galderak egin diezazkioke. Batzordeak planteatutako arazoei irtenbide bat eman beharko die, gehienez 15 egunen buruan; egun horiek Idazkariak harrera egiten duen unetik aurrera zenbatuko dira.

5. Aho batez hartutako Batzorde Mistoaren ebazpen eta akordioak lotesleak izango dira alde bientzat, eta Hitzarmen Kolektiboko akordio bezala erantsiko dira.

6. Guztien adostasunera iristea ezinezkoa izanez gero, alderdiek eska dezakete eskumena duten lan agintaritzek arazoa azter dezatela.

7. Batzorde Misto Paritarioaren ohiko edo ezohiko edozein saiotan agerian utziko balitz enpresek edo langileek Hitzarmenari dagozkion edukiei huts egin dietela, Batzorde Misto Paritarioa lehenik enpresarengana edo langilearengana joko luke, Hitzarmena betetzeko eskatuz, bereziki jarrera edo jarrera hausleak eta berau erregulatzen duten arauak aipatuz.

8. Kontratu baten behar baino lehenagoko deuseztapena gertatuko balitz, edozein alderdiren arau hausteagatik, horiek Hitzarmenaren Batzorde Misto Paritarioa jakinaren gainean jarri beharko lukete.

The image shows five handwritten signatures in black ink. On the left side, there are two signatures stacked vertically. In the center, there is one signature. On the right side, there are two more signatures stacked vertically. The signatures are stylized and cursive.

**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN IKUS ENTZUNEZKO LANAK  
EKOIZTEN DITUZTEN ETA ZERBITZUAK EMATEN DITUZTEN AKTOREEN  
ARTEKO HARREMANAK ARAUTZEN DITUEN I. AKORDIO  
KOLEKTIBOAREN 2005.URTERAKO SOLDATA EGOKITUAK (2004. KPI rekin)**

**ZATI TXIKIETAKO AKTOREAK**

Saioko	164,05€
Asteko	678,73€
Hilabeteko	1923,07€

**IRAUPEN LUZEKO KONTRATAZIOA**

Deialdirako prezio bat ezarriko da:

Protagonistak	398,25€
Bigarren mailakoak	296,9€
Beste aktoreak	224,33€

Hileko gutxieneko soldata bermatuta izango dute:

Protagonistak	4778,99€
Bigarren mailakoak	2672,16€
Beste aktoreak	1346,02€

12, 9 eta 6 lan egiteagatik, hurrenez hurren.

